

Oñatin guztiok dugu deskantsurako eskubide bera!

Ba al dakigu zer den astebururo gaueko zaratekin elkarbizitzea? Nola eragiten du zarata horrek pertsonen deskantsuan? Galde diezaiegun Kale Zaharreko eta San Antoneko bizilagunei, zeinak urteak daramatzaten tabernen hots eta zaratekin elkarbizitzen.

Hain zuzen egoera horri irtenbidea emateko, 2008an, orduko EAJ-PNVren udal gobernuak zaraten kontrol sistema bat jarri zuen martxan tabernetan, zaraten maila erregistratu eta horiek mugatzeko. Sistema horrek, gainera, konexio zuzena zuen udal zerbitzuekin, zaraten kontrola eta inspektzioa egin eta arau haustea zigortu ahal izateko. Bizilagunek eskertu zuten sistema hori, egoera nabarmen hobetu zen eta behingoz astebururo Ertzaintzan salaketak jarri behar izateari utzi ahal izan zioten; haien deskantsurako eskubidea bermatua izan zen azkenean.

2011. urtean, EH Bildu gobernura sartu orduko, ordea, akabo ordura arteko inspektzio, kontrol edota muga guztiak! Oñatik atzera egin zuen berriro eta horrekin batera, baita Kale Zaharreko eta San Antoneko egoerak ere.

EH Bilduren gobernuak 7 urte daramatza, arduragabetasun osoz, tabernen udal ordenantza bete gabe. Eta nork pairatu behar ditu, beste behin, gobernuaren axolagabekeriak? Oñatiarrek, noski, eta kasu honetan, Kale Zaharra eta San Antoneko bizilagunek, zeinak, asteburu asteburu Ertzaintzan salaketak jartzera behartuta ikusi duten berriro euren burua, zenbait kasutan, gainera, salaketa horiek zigortuak ere izan ez daitezten. Baina are lotsagarriagoa da, 5 urte alkatearekin bilera bat eskatzen egon ondoren, hau oraindik beraiekin bildu ez izana euren benetako kexak ezagutzeko.

Bertakoak entzun ez, baina hara non tabernen ordenantza proposamen berria aurkeztu duen gobernuak: herritarrekin eta Kale Zaharra zein San Antoneko bizilagunei kontsultarik gabe, adostasunik gabe, aurkezpenik egin gabe eta gainera soilik 15 eguneko epea emanaz, udal webgunearen bitartez alegazioak aurkezteko. Baina hori ez da okerrera, ez. EH Bilduren proposamenak ez du udal zerbitzuetatik zaraten kontrol zuzen eta automatikoa egitea jasotzen. Horrenbestez, bizilagunek salatzaile paperean jarraitu beharko dute, asteburu zein festetan lo egin nahi izanez gero. Hori jakinda, zein da, orduan, ordenantza berriaren helburua?

Jeltzaleok, noski, ez gaude inondik-inora ados ordenantza proposamen berriarekin eta honakoa galdetzen diogu udal gobernuari: nola konponduko du ordenantza berriak egungo arazoa? Nola bermatuko du, kasu honetan, zarategatik kaltetuak direnen deskantsurako eskubidea?

Tabernen ordenantza berria EH bilduren udal gobernuaren kudeaketa txarraren beste eredu bat besterik ez da; inprobisazioan oinarritutako dokumentua, herritarren eta keltatuen behar zein interesak jasotzen ez dituen. EAJ-PNVtik, gogor egingo dugu lan ordenantza berria oñatiarren eta bereziki Kale Zaharra eta San Antoneko bizilagunen eskaera eta beharrei egokitu izan dadin.

Edonola ere, oñatiar oro animatzen dugu udal gobernuak ez bezala, gure herritarren alde egin eta uztailaren 20a baino lehen, proposamen berriari alegazioak aurkezteko. Oñatin guztiok dugu deskantsurako eskubide bera!

Oñatiko EAJ-PNVren udal taldea

Oñatin, 2018ko uztailaren 11n
